



## HELBURU OROKORRAK

- 1) Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten duten bitzta sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- 2) Udalerri euskaldun guztiek bateginik, euskara nagusi izango den lurgunea osatzea.

## SARRERA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea martxan jartzearen oinarrizko arrazoiak, gune euskaldunetan euskararen erabilera arlo sozial guztietara zabaltzea, eta udal euskaldun guztiekin euskara nagusi izango den lurgunea antolatzea izan dira.

Horretarako, jarritako helburuak era planifikatu eta sistematikoan aurrera atera ahal izateko alegia, udal guztien artean, UEMAN bateginik "Euskara Zerbitzu" on bat martxan jarri nahi da.

Udalerri Euskaldunen eginkizuna euskararen normalizazio prozesuan garrantzi handikoa da. Gure berbak ez du gune sozio-geografiko propiorik, hots, euskara nagusi izango den lurgunea, berari dagozkion funtzio guztiak garatzeko, eta hau ezinbestekoa da edozein hizkuntza aurrera ateratzeko orduan. Euskarak, biziko bada, berez nagusi izango den lurgunea izan beharko du, eta hori zelabait gauzatuko litzateke udalerri euskaldunak batuko balira. Hau da, euskara Euskal Herrian egoera minorizatuan badago ere, esan





daiteke udalerrri euskaldunetan eguneroko harreman arruntetan behintzat euskara dela nagusi. Udalerrri Euskaldunetan (euskaldunak %75-80tik gora) 150.000 inguru euskaldun bizi da, beraz, beste hizkuntz planifikazio aurrerakoiago bat egin daiteke udal euskaldunetan, normalizazio bidea erdaldunetan baino errazagoa baita. Izan ere, udal euskaldunetan berezko euskal sareek (familia, lagunartea, eskola, administrazioa, zerbitzu sozialak, lan mundua...) errazten eta ahalbideratzen baitute euskararen erabilera.

### *UEMAren betekizuna euskararen normalizazio prozesuan*

Udalerrri euskaldunetan euskara izan da, eta da etxeetan jaso eta transmititzen den berba; hala ere, arlo formaleko zereginetarako (eskola, administrazioa, zerbitzu sozialak, komunikabideak, lan mundua... ) orain dela gutxi arte lekurik egin ez zaionez, sukaldean, intimitatean ere, erdarak sartu eta sartzen ari dira indar handiz. Hau dela eta, mugimendu instituzional honen helburu nagusia, erdarek betetzen dituzten funtzio guztiak euskararako bereganatzea izango da, hots, normaltasun osoz bizi ahal izateko gaztelera eta frantsesera beharrezkoak ez izatea. Euskal Autonomi Elkarteko egungo legeriak eta baita Nafarroakoak ere (eskualde euskaldunetan) euskal herritarrei euskaraz bizitzeko eskubideak aitortu, eta administrazioari eskubideak gauzatu daitezkeen neurriak har ditzan exigitzen dio. Beraz, Mankomunitatearen zeregina aitortzen hori gauzatu dadin behar diren neurri guztiak hartzea litzateke. UEMAren zeregina litzateke beraz: Udalerrri Euskaldunetako bizitza soziala, egunerokoa, herriko sektore guztietan, etxean, kalean, administrazioan, komertzioan, ekonomi arloan, zerbitzuetan, lagunartean normaltasun osoz euskaraz burutu ahal izateko bideak zabaltzea, eta asmo horrekin bat egiten duten udalerrri guztiak koordinatu eta plangintza baten inguruan egituratzea.



## UEMAren Hastapenak eta Bilakaera

Udalerri Euskaldunen mugimendua 1988. urte amaieran jarri zen martxan, -Euskal Herrian Euskaraz erakundearen ekimenez hainbat udalerrik (30 inguru) euren egoera soziolingüistikoari egokituz, "Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Arautegia" bai bertako administrazioan, zein udalerrri osoan euskaraz bizitzeko bitartekoak jartzeko asmoz onartu zutenean.

Esan beharra dago, hartutako erabakia ez zela inoiz ere ideia originala izan, ezta odol beroz eta pentsatu gabe egindakoa ere. Udalerri Euskaldunek erabaki hau hartu aurretik, hainbat urte lehenago (1982an), Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 10182 Euskararen Legearen 8.3 artikuluan eta Epaitegi Konstituzionalak artikulua hau deuseztatu bitartean, zenbait udalerritan (udalerrri euskaldunetan) euskara hutsez funtzionatzeko aukera jasotzen baitzen:

"(...) Gorago agindutako hala dela ere, udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren esku-bideen kaltetango gerta ez dadin, herri-agintariek, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute (...)"

Eta artikulua honen beharra justifikatzerakoan, HAEE-IVAPk antolatutako "Euskara eta Administrazioari buruzko I. Ihardunaldietan" horrela zioen Alberto Ansola Jn.k, Euskal Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordearen Lehendakariak: *Porque el castellano cuenta con una reserva monolingüe, el resto del Estado (excepto Catalunya y Galicia) y America Latina, y el euskara está aislado. Especialistas en lingüística afirman que una lengua no pervive sin una reserva monolingüe, de ahí que se haya incluido el artículo 8.3. que*





*determina el uso del euskara en determinados ámbitos de la Administración Local, en los que por otra parte supondría una agresión lingüística obligarles a una comunicación en castellano, cuando no lo han hecho nunca. La existencia de este artículo no debe interpretarse como discriminación, sino al contrario como una norma de deferencia de los hablantes de la lengua dominante para que el euskara pueda resurgir y llegar a ser una lengua equivalente al castellano".*

Beraz, ikus daitekeenez Udal hauek egin zutena Euskararen legearen 8.3 artikulua izpiritua jaso eta praktikara eramateko Udal-Arautegia onartzea izan zen. Udal-Arautegi honek bertako administrazioan euskara ahalik eta lasterren lan hizkuntza izan zedin, eta udalerrri mailan, herritarrak normaltasun osoz euskaraz bizi zitezen bitarteko egokiak jartzeko helburua besterik ez zuen arren, estatuko abokatuak errekurritu egin zuen. Auzitegiak ez legaltzat jo zituen artikulua batzuk, hala ere, helburu eta egitasmo berberekin jarraituz, UEMAk urtero martxan jartzen duen egitasmoarekin gidatzen dira Mankomunitate barruan dauden udalak.

#### *Bilakaera:*

Antolakuntzari dagokionez, urte hauetan asko aurreratu da, eta hasierako udalen arteko ekimen honi gorpuzta eta izaera juridikoa emango zion Mankomunitatea 92an osatu zen. Estatutuei buruz, esan beharra dago, errekurrituak izan zirela eta Epaitegiak ez legaltzat jo zituen artikulua aldatuak izan direla 95ean. Nolanahi ere, eta estatutuak aldatu arren, UEMAren funtzionamendua ez dela aldatu esan daiteke. Izan ere, herritarrek administrazioarekin harremanak euskaraz zein gazteleraz, eta ahoz zein idatziz, izateko duten eskubidea errespetatzen baita. Dagoeneko, 29 udalerririk osatzen dute Mankomunitatea:



NAFARROA: Leitza, Goizueta, Zubieta eta Arantza

BIZKAIA: Aulesti, Gizaburuaga, Zeanuri, Etxebarri, Munitibar, Gatika, Dima, Bermeo Gamiz-Fika eta Artea.

GIPUZKOA: Aizarnazabal, Altzo, Baliarrain, Orendain, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orexa , Gaintza, Itsasondo, Alzaga, Zaldibi, Ikaztegieta, Beizama eta Elduaien.

Denak beraz, hegoaldekoak. UEMAren ustez, Iparraldeko egoera ezberdina izan arren, euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa euskaltzale guztien ihardueraren ondorioa izango da. Hau dela eta, UEMA elkarlanean aritzeko prest egonen da Iparraldeko udal administrazioan "euskaraz ere" funtzionatzen hasteko lehen urratsak ematen hasten direnekin. Bestetik, Hegoalde eta Iparraldeko udalen arteko harrenanak landuko ditu UEMAK. Izan ere, Ipar zein Hegoaldeko euskaldunok euskaraz bizitzea eta ondorioz erdarak gero eta gutxiago erabiltzea euskal nazioa egituratzeko dugun tresnarik baketsu eta garrantzitsuenetarikoa da. Azken finean, euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, gero eta gune handiagoetan hizkuntza nagusia izatea ez da berba gutxitu honi dagokion pribilegioa, berau normalizatzeko modu bakar-ra baizik.





UEMAko herriez gain, badira hala ere, beste udalerrri euskaldun ugari (ikusitako taulak), alegia, euskaldunen kopurua %75-80tik gora duten udalak. Euskal sare bat osatu gura bada antzeko egoera soziolingüistikoan dauden udalerrriek bat egin beharko dute. Izan ere, euskalgintza alorrean gero eta garbiago ikusten ari da UEMAren proiektua. Esate baterako, Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak 1993ko ekainaren 4an onartutako " Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak deitutako txostenean honela dio:

"(...) Adibidez, euskaldunez trinkoenak diren lurraldeak trataera berezia mereziko lukete euskararen nagusitasuna bilatu eta normalkuntza abiada biziagoz bultzatzeko (...)

Bestetik, Bourhis soziolinguista quebectarrak dioen bezala:

"(...) Une honetan, euskaldunen poltsak dauzkagu, badabilzan euskaldun sareak, batetik baserri edo arrantza tradizioan dauden guztiak eta bestetik familia sarea. Landu behar dena zera da, familiatik hasi eta herri osora hedatzen diren euskaldunen sare hauek ugaltzea (...)

Beraz, UEMA sendotzen eta zabaltzen ahaleginak egin beharko dira, euskaraz funtzionatzeko gaitasun eta borondate argia duten udal gehiago bilduz.



## *Herritarren partaidetza*

Proiektu hau aurrera atera ahal izateko herritarren partaidetza ezinbestekoa da. Alperrik izango dira udala, eskola eta euskararen aldeko taldeen egitasmoak herritarrek ez badute euren erantzukizuna hartzen euskararen berreskurapenean. Egun, instituzioei eta eskolari bere erantzukizunak har ditzaten eskatzea ez da nahikoa, norberak (euskalduna eta oraindik ez dena) euskararekiko duen leialtasuna, gero eta indartsuago erakustea ere beharrezkoa da.

Izan ere, euskaldun askok oraindik, eta udal euskaldunetako herritarrek bereziki, euskara arlo pribatuan erabiltzeko hizkuntza dela barneratuta dute, eta etxetik atera orduko ezezagunekin, administrazioarekin, banketxeko langilearekin, telefonoa hartzen denean... erdara erabiltzen du. UEMAk euskaldun guztiei une eta leku guztietan euskara erabil dezaten eskatuko die, Euskal Herriko etorkizuna euskaraz datorrela adieraziz eta horretarako neurriak hartuz. Prozesu hau guztia indartzeko, alderdi politikoek udal-zerrendak euskaldunekin osatu eta Administrazioak udalerrri eta eskualde euskaldunetara bidaltzen dituen sendagile, erizain, pediatra, postari, ertzain, basozain... funtzionari guztiak beraz (estatuko administrazioakoak barne) euskaldunak beharko lukete izan aurrerantzean.

## *Udalerrri euskaldunetarako hizkuntz plangintza*

Udalerrri euskaldunetan, beste guztietan bezalaxe, euskararen normalizazioak plangintza bat eskatzen du. Udalerrri euskaldunek gune aitzindariak izan behar badute, ahalik eta gizarte funtzio gehienetan egin beharko litzateke ahalegina, nolabait esateko, denei leibenttasuna emanez. Hala ere, eta herri euskaldun





gehienen izaera dela eta (herri txikiak, eskualdeburu edo hiriburuekiko menpekotasun handiarekin), herri mailako funtzioak betetzera jo beharko du hizkuntz plangintzak, herrian bertan dauden sareak euskalduntzera (edo euskaldun mantentzera): familia, lagunartea, aisialdia, kultura, administrazioa (bere adar guztietan) irakaskuntza eta zerbitzuak (publiko nahiz pribatuak). Nolanahi ere, administrazioa eta zerbitzuak erdararentzat sarbide errazagoak dira eta, beraz, plangintzan lehentasuna beharko dute.

Herrien azterketan ikusi dugun moduan gehienak herri txikiak badira ere, zenbait herri handi eta eskualde buruak direnak ere baditugu. Gainera, garrantzi handiko herriak dira euskararen lurraldea osatzeko plangintzan. Horiek, bistan denez, beraien ezaugarrietara egokituko den plangintza behar dute. Alde batetik, askotan etxeke eta kaleko erabileran higadura handiagoa jasan dute (Bermeo, Baztan...) eta hain garrantzitsua den gertuko komunitateko sareetan nahikotasun mailara ez dira iristen. Beraz, esparru horiek lehentasuna beharko dute.

Baina bestalde, inguruko herrientzako erakarpen guneak dira, bai administratiboki, laboralki, zerbitzuen, ikastetxeen eta aisialdiaren aldetik, eta baita kulturalki ere. Beraz, eta bertakoen nahiz inguruko hizkuntz egoera desoreka ez dezaten, gizarte-funtzio horietan euskararen normalkuntzak bideratzeak ere ezinbestekoa dirudi. Kasu hauetan ere, eskualde mailako plangintzak egin beharko lirateke.



## LEGE GINTZALDI HONETAN ERAGIN BEHARREKOAK:

### 1)-UDALETXEA

### 2)-UDALERRIA

#### 1)-UDALA

1.a)-Euskara lan hizkunta udal-administrazioan:  
HAEE eta EUDEL erakundeekin hitzarmena

1.b)-EAEko Administrazio autonomikoarekin harremanak euskara hutsez izan daitezen akordioak gauzatzea.

1.c)-Nafarroako Udal euskaldunen eta Iruñako Administrazioaren arteko harremanak euskaraz izan daitezen HPZN eta INAP erakundearekin euskarazko zirkuitua gauzatu eta inprimakiak euskara ditzaten negoziatzea eta presionatzea.

1.d)-Hegoaldeko Estatuko administrazioarekin harremanak euskaraz izan daitezen presionatzea: Notaritzak, Bake epaileak, epaileak, INSS, INE...

1.f)-Iparraldeko udal euskaldunekin harremanak sendotu. Helburua: Herriko Etxeek herritarrei ematen dieten zerbitzua "euskaraz ere" ematea.

#### 2)-UDALERRIA

2.a)-Merkataritza eta lan munduan paisaia linguistikoa euskaratzea.

Merkatal mundua (denda, taberna, jatetxe, ileapaindegi...) kanpoko zein barruko errotulazioa euskaratzea.  
Lan munduan lehen urratsak ematea.

2.b)-Osasun zerbitzuak eta beste zerbitzu publiko guztiak, herrikoak zein eskualdekoak, euskalduntzea.

2.c)-Herritarrak UEMaren proiektuan integratzea: Euskara bazordeak, Euskara taldeak sortzea

-Kultur ELEjira proiektua indartzea. Kultur "produkzioa" (musika, antzerkia, hitzaldiak, ikastaroak) euskaraz ziurtatzea.

-Herritarrak euskaraz trebateko ikastaro bereziak antolatzea.

-Udalerrri mailako Kultur-kirol taldeek euskaraz funtziona dezaten laguntza teknikoa ematea.





# 1 UDALETXEA: EUSKARA LAN HIZKUNTZA BIHURTZEA HELBURU

## Hizkuntz eskakizunak:

Udalaren iharduera ofizial osoa euskaraz burutu ahal izango dela bermatzeko, ezinbestekoa da langile-goaren gaitasuna ziurtatzea. Euskal Autonomi Elkartean gaitasun hori ziurtatzeko, behar den kasuetan birtziklaia prestatzeko edota langile berrien hautapenerako, Udal lanpostuen Hizkuntz Eskakizunak finkatu eta bete behar dira 224/89 dekretuak xedatzen duenaren arabera.

Nafarroan "Eskualde Euskaldunean" euskara ofiziala denez, legeak behartzen ditu udal hauek zerbitzu osoa euskaraz eskaintzera. Beraz, Nafarroako udal-langilegoaren prestakuntzak, EAEko langilegoaren parekoa izan beharko luke.

## NEURRIAK:

- 1) HAEE erakundearekin landutako hitzarmena funtsezkoa da: Kalitatea lantzeko ikastaro bereziak, Bizkaieraz erabiltzeko hainbat molde lantzea, "Ley del suelo" eta abar euskaratzen hastea, udal espedienteak...Nafarrekin aritzeko eta ereduak batzeko elkarlana finkatzea INAP erakundearekin.
- 2) Arkitektu eta aparejadoreak trebatzeko ikastaroak? Lexikoa lantzea Euskaldunak kontratatzea aurrerantzean.





- 3) Informatika programak: WORD 6.0 euskarazko bertsioa udaletxe guztietan sartzea. IZFE (Gipuzkoa), LANTIK (Bizkaia) eta ANIMSA (Nafarroa) informatika enpresei euskarazko programak jartzeko eskatu: Sarrera/irteera erregistroak, ur-errezibu, zergak, aurrekontuak...
- 4) Aholkularitza juridikoa ematen duten enpresa euskaldunak kontratatzea.
- 5) Jaurlaritza eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundiekin gure arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen hitzarmenak lantzea.
- 6) Enpresa pribatuekin harremanak euskaraz ziurtatzea. Aseguru konpainiei polizak euskaraz eskatzea...
- 7) Estatuko administrazioa presionatzea: Notaritzak, bake-epaileak, INSS, INE...
- 8) ARTEZek duen inprimaki fondoa erabiltzea.
- 9) Gaztelera hutsez datorrena bueltatzea.

Iparraldean, udal langileak euskalduntzen eta alfabetatzen hastea. AEK eta udal euskaldunen arteko akordioa lantzea. Ahozko zerbitzua euskaldunei euskaraz ematea lehen urratsa litzateke.





## 2 UDALERRIA: EGUNEROKO ZEREGINETARAKO ERDAREN BEHARRA EKIDITEA LITZATEKE HELBURUA.

Hizkuntza  
politika

### 2.a)MEREKATARITZA ETA LAN MUNDUAN PAISAIA LINGUISTIKOA EUSKARATZEA

Euskara idatzia da zoko guztietara zabaldu eta sartu beharreko elementua, izan ere, hori sartzen den heinean, ahozkoaren erabilera izugarri bermatzen baita euskaldunen artean gaurko funtzionamendumol-detan. Alderantziz, hitzezkoari bai baina idatziari ez esaten dioten lekuetan, ahozkoaren narriadura eta gainbehera nabaria da.

Izan ere, gizarte modernoan zerbitzu sektoreak (komertzio, jatetxe, taberna, hotel, banketxe, ileapandegi,..) ekonomikoki (gero eta handiago) duen garrantziagatik, eta bestaldetik aktibitate hauek bezeroekin duten harreman zuzenagatik enblematikoak bihurtzen dira hizkuntzaren normalizazioan. Sektore honek herritarrekin lotura estua du, eta beraz, gizartearen eboluzioarekin bat egin behar du, bezeroei zerbitzu hobe eman. Bezeroari ahozko zein idatzizko informazio guztia euskaraz ematea da helburua, euskal bezeroa erakartzea eta errespetatzea alegia.

### Merkatal mundua euskalduntzeko egitasmoa

Merkatal munduan oraintsu arte egindako guztia ordea, espontaneoki edo (ia) planifikaziorik gabe egin den zerbait da. Mekatariak beren kabuz udalerrietako giroari nola edo hala egokituz, bere ingurutik zetorkien euskararen eskaerari erantzuten saiatu dira beraz.





Aurtengo egitasmoan eta hurrengoan, 1994an egindakoari jarraipena egiteaz gain, Bermeon eta sartzen diren udalerrri berrietan lehentasunezko betebeharra izango da eginkizun hau.

### Egitasmo honen helburuak hauek lirateke:

1)-Ageriko errotulazio guztia publikoa (udalari dagokio) zein pribatua (establezimendu eta lantegien izenak, barneko errotuluak, menuak, publizitatea, fakturak...) euskaraz izatea.

2)-Establezimenduetako erabilpen mintzatua areagotzea.

Helburu horiek lortzeko- UEMAK kanpaina bat bideratuko du, establezimendu guztiak bisitatuz eta zera eskainiz: Errotuluak euskaraz jartzeagatik, udalak kostuaren %50 ordaintzea 30.000 pezeta gehienez, beti ere, errotulua euskaraz jartzeagatik sortzen den gainkostua estaltzearren. Nolanahi ere, edozein obra baimen ematen denean errotulazio guztia euskaraz jartzea eskatuko dio udalak eta diru laguntzak eskaini.

Euskara zerbitzua dagoen herrietan, itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua eskainiko da.

### Euskara lan mundura:

Euskarak egin ditu dagoeneko lehen urratsak lan munduan. Hor daude, ELAY, CAF eta beste enprestan egindako ahaleginak. Nolanahi ere, lan munduan beste esparru sozialetan (Irakaskuntza, komunikabideak, administrazioan ) baino gutxiago sartu da euskara. Egun, lan mundua euskararen berreskurapen prozesuan hutsune bat dela esan daiteke.





Katalunyan gertatu bezala, hemen ere, garbi dago lan mundua euskalduntzen ahal dela, bereziki Euskal Herrian eta bertarako lana egiten duten enpresetan. Gainera, bideragarria izateaz gainera, Katalunyan bezala, euskara lan munduan sartzeari irabaziak handitzeko tresna izan daitekeela esan beharra dago.

Izan ere, bere produktua Euskal Herrian saldu nahi duen enpresak ezin izango du bertako errealitate linguistikoa baztertu, etorkizuna euskaraz dator eta. Bestetik, Europako merkatu bakarrean arrakasta komertziala izateko lurralde ezberdinen kultura eta hizkuntza errespetatu beharko dira, herri bakoitzak bere legislazio propioa izango baitu. Hala ere, horretarako, lehenik eta behin topiko, aurriritzi eta inertzia ugari gainditu beharko dira.

Euskara lan munduan sartzeari administrazioaren betekizuna bada ere neurri batean, sindikatu, langile eta batez ere enpresarien esku dago. Garbi dago beraz, agente guztiak inplikatu beharko direla arrakasta izateko.

Aurten, UEMAK sindikatu, enpresari eta administrazioarekin batera -ahal den neurrian-ihardunaldiak antolatuko ditu. Ihardunaldi hauen helburua Euskal Herrian egin den ahaleginak aztertzea litzateke, materiala biltzea... Ondoren batzorde bat sortu eta udal euskaldunetan kokatuta dauden enpresetan zer egin daitekeen aztertuko litzateke.



## 2.b)-OSASUN ETA BESTE ZERBITZU PUBLIKOAK EUSKALDUNTZEA

Herritarrei zerbitzu sozialak euskaraz eskaintzea ez da bakarrik euskaldunei dagokien eskubidea, euskararen transmisioa ziurtatzeko ezinbesteko tresna baizik. Egun, zerbitzu sozialetan euskarak duen gabezia da hain zuzen ere, euskararen transmisioan ematen ari den etenaren kausa garrantzitsuenetariko bat.

Euskara prestigiatu behar da. Eta prestigioa ez datza euskaldunen kopuruan, euskarak betetzen dituen funtzio sozialetan baizik. Funtzio defizit horrek gutxiagotasun konplexua, euskararekiko gorrotoa eta ezintasuna sortaraz ditzake herritarren artean.

Hizkuntzaren berreskurapenerako osagarriak diren eskola eta Administrazioa euskalduntzea bezain garrantzitsua da udalerrri zein eskualde mailan sendagile, erizain, pediatra, epaile, abade, ertzain, kutxako langile eta basozainarekin osatutako sare euskalduna izatea.

Hurrengo bi urtetan:

-Udalerri euskaldunetako sendagile, erizain eta pediatra erdaldunen arazoa konpontzen saiatuko gara. Osakidetzari eta Osasunbideari zera eskatuko zaio:



A)-UDALERRI EUSKALDUNETARA BIDALTZEN DIREN SENDAGILE, ERIZAIN, PEDIATRAK., BETI EUSKALDUNAK IZAN DAITEZELA.

B)-ERA BEREAN, ESKUALDE EUSKALDUNETAN KOKATUTA DAUDEN ANBULATEGIETAN ZERBITZU OSOA EUSKARAZ IZAN DADIN PREMIAZKO PLANGIINTZAK ERATZEA.

### 2.c)-HERRITARREN PARTAIDETZA UEMAreN PROIEKTUAN

Euskararen berreskurapena bideratzeko herritarren partaidetza ezinbestekoa da. Beraz, herritarrek ez badute bat egiten proiektu honekin -neurri batean bederen- nekez lortuko dituela UEMAK bere helburuak esan daiteke.

Herri ekimenaren helburua, herri euskaldunetan herritarren inplikazioa lortzea izanen da. Hasteko, UEMAreN egituraz gainera, komenigarria litzateke ahal den eta beharrezkoa ikusten den herrietan euskara talde edo euskara batzorde bat biltzea. Honela, bi alderdietatik egin beharreko lanak (udala eta herri ekimena) ezaugarri nagusi bat izan beharko luke: OSAGARRITASUNA.

Osagarritasuna hau bi eratara landu daiteke. Batetik, euskara batzordea edo taldea UEMAreN eta dagokion herriko udalaren plangintzan inplika daiteke, lagunduz, ekarpenak eginez eta herritarren artean plangintza zabalduz eta bere potentzialitatea handituz. Bestetik, euskara talde horrek bere dinamika eta esparru propioa izan beharko luke, batez ere udalaren eraginpetik urrutien gelditzen diren arloetan: kalea, lagunartea, mota ,guztietako elkarteak, gazteen arteko harremanak edo bizitza pribatuko beste arlo batzuk.





Hala ere, herri bakoitzaren nolakotasuak erabakiko du modu batera edo bestera eta esparru honetan edo hartan lan egin beharko den. Bestalde, "herritarren inplikazioa" era askotara gauzatu daiteke: herriko elkartean normalizazioa lagunduz, ikastetxetan, lagunartean ...

## "UEMA BERRIPAPERA"

Herritarrek UEMAk martxan jarritako egitasmoaren berri izan dezaten "UEMA berripapera" aterako da (hiru ale) aurrerantzean ere.

### *Udaletxetik elkarlana bideratuko da:*

- Kultur ELEjira deitutako zirkuitu hau aurrean jarri da martxan eta helburu nagusia gure herrietan sortzen den kultura ezagutaraztea da. Bestetik, gure herritarrek jasotako kultura transmititzea, gure dantzari, antzerkigile, kirolari, sendagile, poeta, idazle...herri batetik bestera mugimenduan jartzea litzateke beste helburua.

ELE horrek adierazten duen bezala hitzarekin lotutako kultur ekitaldiak izango dira ELEjira kultur zirkuituan sartuko direnak: hitzaldiak, antzerkiak, kantaldi-tertuliak, kirol-tertuliak, ipuin-kontalariak Beraz, formato txiki eta merkean egin dira, herri administrazioen aurrekontuei eta beren azpiegitura txikiei erantzunez, gehiegikerietan ez erortzeko.

### -Herritarrak trebatzeko ikastaro bereziak:

Herritarrak (alkate eta zinegotziak barne) euskaraz trebatzeko HABEK antolatutako moduluak, AEKK eta IKAK antolatutako ikastaro bereziak emango dira herrietan. UEMAtik bideratuko badira ere, herri bakoitzaren esku geratuko da antolakuntza.

.....

-Udal mailako kultur zein kirol taldeek euskaraz funtziona dezaten laguntza teknikoa ematea.





Aurten, Jaurlaritzako kultura saila, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UEMAKo udalei esker gauzatu da egitasmo hau. Aurrerantzean ere, horrela beharko luke izan. Horrela balitz Kultur ELEjira proiektua urtero indartzen eta hobetzen joango litzateke.17

Hau dela eta:

-Udalarengandik dirulaguntzaren bat jasotzen duten kirol, kultur eta aisi elkarteek beren ihardunetan argitaratzen dituzten idatzi, iragarki, ohar eta gainerakoak euskaraz idatzi eta ezagutzera (megafofia..) eman beharko dituzte.

3.a.b)-Udalak-, beraz, pilotalekua, hesiak, oholtzak eta zernahi udal instalazio eta materiala erabiltzeko baimena ematerakoan, hizkuntza baldintza horren berri emango die interesatuei. Eta fidantza itzuli baino lehen egin ohi diren egiaztapenetariko bat hizkuntzari buruzkoa izango da.

Oharra: Obra bat egiteko proiektua euskaraz aurkezte. duenari udalak diru laguntza bat emango dio, -20.000 pezeta gehienez- beti ere, euskaraz egiteagatik egon daitekeen itzulpenaren gainkostua estaltzearren.





## MANKOMUNITATEA

1988an Euskal Herrian Euskaraz erakundearen inizatibaz Udalerrri Euskaldunen mugimendua nartxan jarri zenetik asko aurreratu da antolakuntza aldetik. Izan ere, hasierako udal bilgune zena, EKBk sortutako zerbitzuari esker Udalerrri Euskaldun Mankomunitatea (UEMA) bihurtzea erabaki zen 1991. urtean Aizarnazabalen, "Udalerrri Euskaldunen Egunean" hain zuzen ere. Egun, mugimendu marjinal izatetik Mankomunitatea sektore herritar, instituzional eta politikoen aldetik onartua izatera pasa da. Izan ere, euskalgintza alorrean gutxitan eman den kontsentsua lortu du UEMAk: Hizkuntza Politikarako Sailordetzarekin (HPS) proiektuak elkarlanean, HAEE-IVAPekin hitzarmena, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Aldundien onarpena eta laguntza ekonomikoa, EAJ, HB eta EAren babes politikoa, herri mugimenduaren laguntza

Guzti hau, UEMAk egindako apustua eta zabaldutako bideari esker gauzatu da. Izan ere, UEMAk dituen helburuak bete ahal izateko euskalgintza alorreko agente guztien partaidetza ezinbestekoa da.

Nolanahi ere, UEMArekiko hasierako susmoak ez dira oraindik erabat uxatu. Ez da ahaztu behar herri ekimenari esker sortutako erakunde instituzionala dela UEMA eta egoera ezohiko honek oraindik ere arazoak sortzen dituela. Arazoak arazo, aurrerantzean ere, UEMAk bere autonomia mantendu eta zabaldutako bideak landuko ditu, horretarako egin behar diren aldaketak eztabaidatuz eta egin beharreko egokipenak eginez.





Beraz, UEMA euskalgintza arloan aritzen diren erakundeekin harremanak eta elkarlana bideratzen saiatuko da:

a)-Udal euskaldunak- Antzeko egoeran dauden udalerrri euskaldunekin hain zuzen, EAJ, EA eta HB alderdiekin batera bisitak prestatu, eta ahalik eta udal gehienei UEMAREN egitasmoa aurkeztea da helburua. Ondoren, eta borondate politikoa balego UEMAN sartzeko gonbidapena egingo zaie. Lehen lana udaletxearen produkzioaren azterketa sakona egitea litzateke, gazteleraz egiten den lana identifikatzea alegia. Azkenik, eta datuak aztertu ondoren, euskara lan hizkuntza bihur dadin plangintza bat osatuko litzateke.

Lan honek EAJ, EA eta HBren inplikazio osoa eskatzen du.

Iparraldeko udalerrri euskaldunekin hasitako harremanak sakonduko ditu UEMAK.

b)-Instituzioak-

-Euskal Autonomi Elkarteko Hizkuntz Politikarako Sailordetzarekin dauden harremanak eta elkarlana finkatuko ditu UEMAK.





-Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiekin administrazioa euskalduntzeko ahaleginak biderkatu asmoz elkarlana bideratuko du UEMAK. Gipuzkoan jarriko diren mahaietan (administrazioa, merkataritza eta kirola) parte hartuko du UEMAK.

-UEMAK, hiru Instituzio hauekin harremanak euskaraz ahalbideratzeko hitzarmenak landuko ditu.

-Instituzioen laguntzarekin Kultur ELE-jira indartzen saiatuko da UEMA.

Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarekin harremanak berreskuratu eta Iruñeko Administrazioarekin euskaraz funtzionatzeko dauden arazoak konpotzen saiatuko da UEMA.

c)-HAEE-IVAP eta EUDEL erakundeekin landu den hitzarmena gauzatzea litzateke helburua. Bestetik, hitzarmen hori Nafarroan finkatzen saiatuko da UEMA.

Antolakuntza aldetik, Udal bakoitzak aukeratzen duen/dituen ordezkariaren (alkate, zinegotzi) garrantzia azpimarratu behar da, bera izango da eta udaletxean eta udalerrian euskararen normalizazioaren arduraduna, -hizkuntz eskakizunak, hitzarmenak, alfabetatze ikastaroak..- idazkariakaz harremanetan egongo dena, eta azken finean egitasmoaren jarraipena egingo duena.

### "Udalerri Euskaldunen Eguna"

"UEMA eguna" Mankomunitatearen aldeko eta euskararen aldeko aldarrikapena egiteko egun aproposa da. "Udalerri Euskaldunen Eguna" udal euskaldunetako herritar eta Euskal Herriko euskaltzaleen erreferentzia izatea litzateke Mankomunitatearen helburua."Udalerri Euskaldunen Eguna" egun erakargarria





bihurtu behar dugu Mankomunitatearen ispilua baita. Horretarako, udal euskaldunetako euskitzale, kultur, kirol, folklore.. artisautzan dihardutenak "Udalerrri Euskaldunen Egunean" inplikatzeari ezinbestekoa izango da.

UEMA aurrera begira egiten ari den hausnarketa.

Hizkuntz plangintzaren lehentasuna hurrengo urteotan euskararen erabileraren egunerokotasunari lotuta dauden esparruak (farmilia, lagunartea, aisaldia... ) sendotzea izango da, eta horretan oinarrituta, bizitzaren gainerako gizarte alorretan (administrazioa, zerbitzu sozialak, lan mundua... ) euskararen erabilera hedatzea.

**Euskararen erabilera nonbait baldin badago sustraituta, hori, udalerrri euskaldunetan da, herri hauetan ematen baitira euskara gizarte bizitzaren alor guztietara hedatzeko baldintzarik egokienak. Ikuspegi honetatik, udalerrri euskaldunen hizkuntz plangintza lehentasunezkoa da.**

Udalerrri euskaldunetan bizi diren euskaldunentzat ezezik, Euskal Herri osoko hiritarrentzat ere, izugarri garrantzitsua da euskal guneetan garatutako hizkuntz plangintza. Arrazoen artean hauek aipa daitezke:

**a)-Euskararen mundu sinbolikoa, jatorria eta zuzentasuna hobeto gordetzen da udalerrri euskaldunetan.**

**b)-Gune aitzindariak izan daitezke euskararen corpus eta estatusaren normalkuntzan.**





Udalerrri euskaldunen hizkuntz plangintzarekin batera, eskualde hauen garapen ekonomikorako plangintzari ekin behar zaio. Ez da ahaztu behar nekazaritza, arrantza eta industriaren krisiak bortizki astindu dituela herri hauek eta ezinbestekoa dela, iharduera ekonomikoaren dibertsifikazioan oinarrituta, soziosinbolikoki hain garrantzitsuak diren herri hauen etorkizun ekonomikoa ziurtatzea.

Izan ere, udalerrri euskaldunak proiektu hau aurrera eraman ahal izateko bizirik mantendu behar dira, alegia herritarrek bertan bizitze. geratu behar dute. **Herritarrak bertan geratzeko eta kanpotik erakartzeko udalerrri euskaldunak bizitzeko leku atseginak bihurtu behar dira.** Horretarako lana, zerbitzuak, etxebizitza, eskola, kultur eskaintza zabala... bertan izan behar dute, beti ere, euskara eta euskal kultura proiektuaren gunea direla kontutan izanik.

**Hau dela eta, Lurralde Antolaketarako Zuzenbideak Udalerrri Euskaldunen Manko-unitatean duten eragina kontutan izanda, udal euskaldunen garapen sozio-ekonomiko, sozio-kultural eta sozio-linguistikoa burutzeko tresna legez erabili beharko dira.** Izan ere, udal txiki hauek etorkizun ekonomiko eskasa dutenez, migrazio-inmigrazio guneak bilaka daitezke, gazteak hirira begira dauden bitartean hiritarrak bizi-leku lasai baten bila baitabiltza.

**Guzti hau kontutan izanik, komenigarria litzateke udalerrri euskaldunak babes bereziko euskal gunetzat jotzea eta bertan politika bereiztua eta bateratua garatzea.** Bat egiten du beraz UEMAK Euskararen Aholku Batzordeak "Euskararen Politikarako Oinarrizko Irizpideak" txostenean esaten duenarekin.- "Adibidez, euskaldunez trinkoenak diren lurraldeak trataera berezia mereziko lukete euskararen nagusitasuna bilatu eta normalkuntza abiada biziagoz bultzatzeko"-





**Ildo honi jarraituz Euzko Alderdi Jeltzaleak, Herri Batasunak eta Eusko Alkartasunak Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea lehentasunezko proiektu gisa bultzatzeko eta beraz, goian aipatutako atal guztiak lantzeko konpromezua hartu beharko lukete.**

Proiektu hau aurrera atera ahal izateko UEMAk egun ez dituen baliabide ekonomikoak beharko ditu izan. Erakunde instituzional legez errekonozitua beharko du izan eta era berean finantziatua, EUDEL den beza-la alegia. **Izan ere, aipatutako helburuak era planifikatu eta sistematikoan aurrera atera ahal izateko, "Euskara Zerbitzu" on bat martxan jarri beharko du UEMAk.**

#### EUSKALDUNEN INDIZEA % 80TIK GORAKOA DUTEN HERRIAK

110 udal:	28 Nafarroan	16.774 biztanle
	45 Gipuzkoan	54.120 biztanle
	36 Bizkaian	32.881 biztanle
	1 Araban	1.310 biztanle
	-----	
		105.085 biztanle





HERRIA HERRIALDEA BIZTANLEAK EUSKALDUNA

Abaltzisketa (G)	284	97.5
Aduna (G)	296	96.3
Aia (G)	1681	95.3

HERRIA HERRIALDEA BIZTANLEAK EUSKALDUNA

Aizarnazabal (G)	531	96.5
Ajangiz (B)	361	94.0
Albiztur (G)	303	98.3
Alegia (G)	1680	83.4
Alkiza (G)	264	95.3
Altzaga (G)	94	96.8
Altzo (G)	333	94.5
Amezketta (G)	1040	97.3
Amoroto (B)	391	97.1
Araitz (N)	558	96.6
Arama (G)	143	90.8
Aramaio (A)	1310	85.9
Arano (N)	149	98.7





HERRIA	HERRIALDEA BIZTANLEAK	EUSKALDUNA
Arantza (N)	719	99.3
Arantzazu (B)	284	89.3
Arbizu (N)	895	92.3
Areso (N)	249	95.6
Arrieta (B)	422	90.9
Arruazu (N)	102	83.3
Asteasu (G)	1205	84.7
Ataun (G)	1739	96.0
Aulesti (B)	697	96.7
Azpeitia (G)	13427	87.5
Baliarrain (G)	99	99,0
Basaburua (N)	726	86.2
Beizama (G)	175	98.8
Belauntza (G)	295	85.3
Berastegi (G)	969	95.6
Berriatua (B)	1020	92.4
Berrobi (G)	603	81.6
Betelu (N)	302	88.1
Bidegoian (G)	441	94.7



HERRIA	HERRIALDEA BIZTANLEAK	EUSKALDUNA
Castillo-Elejabeitia (B)	621	83.7
Dima (B)	1038	91.6
Donamaria (N)	319	92.5
Ea (B)	802	90.6
Elantxobe (B)	550	93.9
Elduain (G)	233	98.3
Elgeta (G)	1007	87.6
Elgorriaga (N)	171	91.8
Eratsun (N)	194	96.9
Erefio (B)	277	93.8
Ergoiena (N)	516	96.7
Errezil (G)	677	98.0
Errigoiti (B)	440	95.9
Etxalar (N)	825	90.4
Etxebarria (B)	786	93.7
Ezkio-Itxaso (G)	545	92.1
Ezkurra (N)	266	97.4
Fruniz (B)	318	96.5
Gabiria (G)	432	97.9



HERRIA	HERRIALDEA BIZTANLEAK	EUSKALDUNA
Gainza (G)	123	100.0
Gamiz-Fika (B)	891	91.2
Garai (B)	256	89.2
Gatika (B)	931	88.7
Gautegiz de Arteaga (B)	752	87.8
Getaria (G)	2349	93.6
Gizaburuaga (B)	128	97.6
Goizueta (N)	947	98.3
Hernalde (G)	287	87.4
Ibarrangelua (B)	521	89.3
Idiazabal (G)	2057	87.1
Igantzi (N)	567	95.1
Ikaztegieta (G)	370	89.9
Ispaster (B)	618	94.9
Itsasondo (G)	640	82.9
Ituren (N)	467	98.1
Kortezubi (B)	383	96.0
Labaien (N)	301	95.3
Larraul (G)	143	97.9





HERRIA	HERRIALDEA BIZTANLEAK	EUSKALDUNA
Leaburu-Gaztelu (G)	567	94.1
Leitza (N)	3016	91.0
Lesaka (N)	2608	80.1
Lekeitio (B)	7394	87.0
Lizartza (G)	697	97.8
Mañaria (B)	504	91.2
Markina-Xemein (B)	4904	86.7
Meñaka (B)	440	92.8
Mendata (B)	348	96.5
Mendexa (B)	347	89.1
Morga (B)	347	95.0
Mundaka (B)	1641	87.6
Munitibar-Arba.-Gerrik..(B)	455	98.7
Murueta (B)	201	89.3
Mutiloa (G)	184	94.0
Mutriku (G)	4578	84.1
Muxika (B)	1443	93.7
Nabarniz (B)	251	98.4
Oitz (N)	154	94.8





HERRIA	HERRIALDEA BIZTANLEAK	EUSKALDUNA
Orendain (G)	170	97.0
Orexa (G)	78	98.7
Orio (G)	4258	80.8
Ormaiztegi (G)	1235	80.7
Saldías (N)	165	98.2
Segura (G)	1297	88.5
Sunbilla (N)	698	94.1
Urdazubi.(N)	450	83.8
Urdiain (N)	648	86.0
Urrotz (N)	177	97.2
Zaldibia (G)	1582	87.3
Zeanuri (B)	1161	93.4
Zeberio (B)	958	86.1
Zegama (G)	1399	90.4
Zerain (G)	227	97.7
Zestoa (G)	3383	87.1
Zubieta (N)	319	97.2
Zugarramurdi (N)	266	98.5



## EUSKALDUNEN INDIZEA % 75ETIK 80RA DUTEN HERRIAK

18 udal:

3 Nafarroan	9.769
5 Gipuzkoan	30.491
10 Bizkaian	35.280
	75.540 biztanle

### HERRIA                      HERRIALDEA BIZTANLEAK EUSKALDUNA

Azkoitia (G)	10512	76.9
Baztan (N)	7417	79.3
Bermeo (B)	17923	76.8
Bertizarana (N)	647	75.3
Forua (B)	949	79.3
Irura (G)	632	78.1
Izurza (B)	269	78,9



HERRIA HERRIALDEA BIZTANLEAK EUSKALDUNA

Larrabetzu (B)	1472	76.5
Larraun (N)	1705	76.2
Leintz-Gatzaga (G)	239	77.7
Lezama (B)	2020	75.0
Maruri (B)	529	78.0
Ondarroa (B)	10561	78.4
Oñati (G)	10695	78.3
Otxandio (B)	1112	77.5
Oiartzun (G)	8413	76.1
Sukarrieta (B)	280	78.0
Ubidea (B)	165	79.4

